

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO

IN MEMORIAM

(1921-1998)

Bilbo, 1999-I-29

Ἐκεινοῦ ἦν ὁ λυχνόξ ὁ κοιόμενος
καὶ φαίνων. Ἰωάννηζ, V, 35.

Jaun-andreok:

Ohore handitzat daukat Federiko Krutwig Sagredo, oraintsu joan zaigun euskaltzainaren oroitzapena egiteko, hemen, zuen aurrean, mintzatzeko parada izatea. Izan ere, guztiok geure mendearen eta eraginen seme-alabak izanik, zinzinez esan dezaket, nire belaunaldi osoak, eta bai eta aurrekoaren parte batek ere, zor handia izan duela Krutwigekin, berak mende honen erdialdean ereindako euskal hazi intelektualaren ume baikara guztiok nolabait. Hortaz, zordunaren lehen egitekoa emailcarengandik jasorikoa aitortu eta modu onez kitatzea denez gero, iragan nadin, gehiago luzatu gabe, Euskal Herriko seme handi horren bizitza ugari eta aberatsa azaltzera, horretarako, itsaso zabalegi eta hondar gabean sartzeko arriskua gainditu beharko badut ere (1).

Federiko Krutwig Sagredo 1921.eko maiatzaren 15ean jaio zen Getxoko Aretan. Aita alemana zuen, Koloniakoa, eta bertoko enpresa batean lan egiten zuen gure artean. Ama, aldiz, bizkaitarra zen, deiturak berak salatzen duenez, italiar jatorrikoa, veneziarra hain zuzen, eta kanaleen hirian ba omen dirau oraindik Sagredotarren leinu-jauregiak. Burges maila oneko familian hezia, Federikok bere inguruan kulturarako giro ezin hobea izan zuen. Etxean liburutegi ederra eta arteetarako zaletasun nabarmena izan zituen lagun txikitandik, garai hartan gure artean, bertoko handikien artean ere, hain komunzki gertatzen ez zena.

Etxeko eta herriko giro eleanizdun hartan Federikok laster gaztelania, alemana eta frantsesa ikasi zituen. Lehen ikasketak frantses ikastetxean eginak zituen, geroago batxilergoa aleman ikastetxean burutzeko. Ingelesa ere ongi

(1) Nori berea zuzenbidea omen denez gero, aitor dezadan, oroitzapeneko biografia hau prestatzeko, ohiko entziklopediez gainera, Euskaltzaindiko Bibliotekak eskaini dizkidan datuek eta, batez ere, Josu Lavin-ek Bilbon, Bidebarrieta Kulturgunek 1997.eko ekainaren 19an F. Krutwigi antolaturiko omenaldirako presatu zuen biografi hitzaldiak (Bidebarrieta. Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien Urtekaria, II, 1997. Bilbao, 342-345. orr.) laguntza handia eman didatela. Guztiari eskerrik asko.

menderatu zuen. Aitortu beharra dago hizkuntzak ikasteko erraztasun eta zaletasun goiztiarrak izan zituela. Ikasketengatik ez eze, kuriositateagatik ere, bere eskuetara heltzen ziren liburu guztiak gogoz irakurri eta irensten zituen, mintzaira arrotzen gramatikak batez ere.

Latina, greziera, euskara, hungariera, nederlandera, errusiera, arabiera, hebreera, persiera, Indiako hizkuntzak, txinera, georgiera, afganiera... hainbat eta hainbat hizkuntzaren berri zekien. Horietako batzuk aski sakon, mintzatzeko adina, beste batzuen kasuan, ordea, haien grafia, gramatika eta ezaugarri nagusiak, gehienetan azalkerietan gelditu gabe.

Ikasketa formalak merkataritzan, zuzenbidean eta ekonomian egin zituen, Merkatal Irakasletza lortuz. Hortik landa, Sorbonne-n eta Bonn-en Ekialdeko hizkuntzak ikasi zituen, gaztetandik zetorkion jauginari jarraikiz.

Hizkuntzez gainera, giza mintzamen sakonaren azalerak diren hizkuntza horietan hitz egiten zuten herrien berri ere jakin nahi izaten zuen Krutwigek. Alde horretatik, hizkuntzazaletasunarekin batera, geografia, historia eta zibilizazioak ere biziki interesatzen zitzaizkion. Herrialde ezberdinen mapa historikoak egiteko ohi ez bezalako trebetasuna zuen, adibidez, muga aldakorren zergatiak ere ongi gogoan izanik. Ekialdeko erlijioez ere kezkatu ibili zen garai batean Federiko, buddhismoaz batez ere, eta dakigunez hor ikasketa sakonak burutu zituen.

Euskarari gagozkiola, gaztetan hasi zen gure hizkuntza ikasten, hamar urte inguru zituenean, aitaren etxean, berak aitortzen zigunez, neskamearen gelako ohepean, inork ikus ez zezan, ez baitzen garai hartan, non eta Getxoko giro aristokratikoan, batere ongi ikusia denbora hala galtzea, euskara bezalako hizkuntza kaxkar bat ikasten. Hamalau urte bete zituenerako, ba omen zekien mintzatzeko adina euskara.

Hemezortzi urte inguru zituenean, euskal zaletasunak Federiko Euskaltzaindira erakarri zuen, gerra galduaren ondoko bakartasunean ia erabat ahanztirik zegoenera, eta bertan R.M. Azkue ezagutu, biak lagun minak izatera helduz.

Ez datorke gaizki gogoratzea Krutwigek zer nolako Akademia aurkitu zuen orduan. Dakigunez, garaiko errepresio politiko espainolistagatik, euskara erabat zapalduz zegoen, eta kalean euskaraz mintzatzeko ere isunak jartzearaino heltzen ziren oraingo betidaniko demokrata batzuen gurasoak.

Halere, honekiko kontraesanean, Euskaltzaindiak bizirik zirauen. Izan ere, Errepublika garaiko Autonomi Erkidegoen ahalbideei ate guztiak ixteko, Francok Estatuaren eta probintzien arteko erakunde guztiak, atzeranzko balioaz, ezabatu zituen, eta horregatik, Euskaltzaindia, hegoaldeko lau diputazioen babespeko erakundea izanik, lege-nortasunik gabe gelditua zen. Baina Azkue orduko alderdi nazionalistetan behin ere afiliatu ez nabarmendu ez zelako, eta

zeukan apaiz kontsiderazioagatik, bere Euskaltzaindi 'izoztuan' utzi zuten bakan, horrela, gainera, Estatuak, kanpora begira, museoko hizkuntza zahar hura errespetatzen zuelako itxura egin ahal izateko.

Bilerak bakan eta erdi klandestinoak izaten ziren urte ezin tristeago haietan. Euskaltzain abertzale asko ihes eginik edo atzerrian zeuden, euskara ikeritzeko bitartekorik ez, eta ofizialtasun hispano-frantsesetik kontrako eraso eten-gabeak zetozkion, desprestigio kanpaina latzekin. Idazleen arteko giroa, gainera, garbizalekerian itorik zegoen, erdarazko eztabaida antzuetan noraezean. Euskal argitalpenak oro, zer esanik ez, guztiz debekaturik... Eta Azkue lekeitiarrak, gure kostetako karramarro ermitauen antzera, legez kanpoko Euskaltzaindi hartako oskol ahulean gorderik, gerrarik izan ez bailitzen, gure hizkuntzaren aurkako girorik ez balego bezala, egunero lanera joaten segitzen zuten Ibaiondo kalean, bere hiztegirako berba aurkitu berriekin eranskinak presatzen, folklore eta herri musika aztertzen, bera inguratzen zuten baina atsegin ez zituen egoera eta denbora haietatik at erabat.

Giro benetan hits horretan, Federico Krutwigen agerrera egiazko argia izan zen euskal munduaren iluntasunean, zeren hizkuntzetarako zaletasunaz gainera, Krutwig antolatzaile ona baitzen, hurrengo urteetan ederki erakutsiko zuenez. Azkuek 1942.eko urriaren 29an euskaltzain urgazle izendatu zuen, 21 urte zituenean, eta urte batzuk geroago, 1947.eko azaroaren 29an euskaltzain oso, 26 urterekin, gure Akademiak inoiz izan duen euskaltzainik gazteena, oker ez bano (2).

Krutwig pausoka Euskaltzaindiaren barne funtzionamendua eta egitura egokitzen saiatu zen. Ordurarte bilerak erdaraz egiten baziren, berari esker euskara 'lan-tresna' izatera pasatu zen. Hori, garai hartarako, urrats garrantzitsua izan zen, eta haustura garbia zekarren aurreko mentalitatearekiko. Bestalde, euskaltzain berri batzuk izendatzea proposatu zuen. Horietako batzuk frankismoak begi onez ikusiriko euskaltzaleak ziren, horiei esker gobernuak Akademiak izan zitzakeen susmo txarrak uxatzeko, baina beste batzuk maila handiko idazle eta azterlariak (Luis Villasante eta René Lafon, adibidez), gure erakundearen prestigioa goratzeko asmoz.

Literaturzalea ere genuen Federiko. Euskaltzaindiarekin erabat loturik egon zen garai horretan artikulu, poema eta itzulpen ugari argitaratu zituen *Gernika*, *Egan* eta *Euzko gogo*a aldizkarietan. Horiez gainera, ehundaka poema aleman itzuli zituen Bizkaiko euskarara, atzerriratu behar izan zuenean, familiaren kalterako izango zirelakoan, itsasora jaurtiak. Bereziiki gogoratzekoak dira, besteak beste, Euskaltzaindiaren berregituraketaz eginiko txostenak.

(2) H. Knörrek ohartarazi didanez, Azkuek bere *Estudio comparativo dentre el vascuence y varias lenguas cultas*, Bilbao, 1949, 65. orr., hungarierari buruz ari delarik, honela dio Krutwigez: "Debo a nuestro académico, el joven y notable vascológico guechotarra Federico Krutwig Sagredo, estos otros datos". Hau da, seguraski, Krutwigi buruz eginiko lehen aipamena.

Ikerkuntza ere ez zuen alde batera utzi Krutwigek. Julio Urkixo Mintegiaren buru izendatua izanik, Ekialdeko Ikasketen Atalean arabiera, persiera eta indierazko gramatikak idatzi zituen, obra hauek, dirudienez, geroago galdu ziren arren.

Akademiaren egitekoak, fundazio garaian argi ezarriak baina geroago, gitorik ezagatik, tamalez, luzaroegi zokoratuak, hau da, hizkuntzaren ortografia eta hizkuntza batuaren literatur eredia finkatzea, berriro ere plazaratu zituen Federikok. Berak euskal tradizio zaharra, Iparraldeko idazle klasikoena bereziki, berreskuratu beharra aldarrikatu zuen, Europako beste hizkuntza batzuen batasunean gertaturikoaren ildotik. Bestalde, gerraurreko garbizalekeria gainditu behar zela zekusan, eta euskaldunok mendebaldeko mundu greko-latindarrean partaide izanik, nazioarteko kultura terminologia horretaz baliatzeko eskubidea eta premia planteatu zuen zuhurki.

Krutwigek literatur euskara baturako proposatu zuen bide berriak, hots, alde batetik, gure klasikoei atxikiak eta, bestetik, nazioartekotasun terminologiari osatuak, laster bereganatu zituen haren inguruko idazleak (Villasante, Erkiaga, Berriatua, Mirande...). Egia da, noski, geroago, inguruko egoera soziologikoak denboraz erakusten digun pragmatismoak idazle horiek, gauza batzuetan —grafia etimologikoetan batez ere—, bide teorikoegi hartatik urrunaraziko zituela, baina ezin ukatuzkoa da, oro har, berak seinatu zigun bideak gaur arte irekirik dirauela, bere balio osoan. Alde horretatik, zinez jo dezakegu Federiko Krutwig gaurko euskara batuaren gerraondoko lehen teorilari eta bul-tzatzaile nagusitzat.

Euskaltzaindiaz gainera, Federiko Krutwigek harreman zabalak izan zituen bere inguruko herritarrekin, arte eta kultur munduan batez ere. Horren adibidea Bilboko *Asociación Artística Vizcaína*-k 1951ean eskatu zion hitzaldia dugu, "El Simbolismo en la Plástica", *Mikelditarrak* deritzon bere eleberrian, 107. orrialdetik aurrera tartekatua. *Mikeldi* pintatzaile-taldearen sortzailea ere izan zen. Alde horretatik, kultur foro ezberdinetan zehar zebilelarik, Federikok adiskide ugari zituen era guztietako artista eta intelektualean artean, politika eta iritzi ezberdintasunek hor inolako oztoporik jarri gabe. Adibidez, Agustin Ibarrola pintatzaile komunistaren adiskide ona zen, beronek duela gutxi kontatzen zidanez, bai eta Enrique Múgica ministro sozialista-ohiaren eta Adolfo Careaga Unidad Vizcaína-ren fundatzailearena ere.

Bada, ordea, Federiko Krutwigen bizitzan gertatu zen une erabakigarria, haren harrezkeroko ibilbidea erabat markatuko ziona. 1952.eko maiatzean Luis Villasante Kortabitarte jaunak bere sarrera-hitzaldia egin zuen Bizkaiko Diputazioaren Jauregian, "Literatur Euskara Laphurtar Klassikoaren gain eratu" zeritzona. Erantzunez, harrera-hitzaldia Federikok egin zion. Hartan, Krutwigek, garai hartarako ezin sinetsizko ausartziarekin, Francopéan Eliza Katolikoak euskararekiko zerabilen zabarkeria salatu zuen gogorki, hargatik kritika bortitza eginez. Txalo beroak jaso zituen, baina bertan zeuden agintari

faxistetako batek, susmo txarrez, euskarazko hitzaldi hura eskuetatik kendu zion, gaztelaniara itzularazi eta Krutwigen aurka kartzela-neurriak hartzeko. Federikok baina, itzalpean egoteko gogorik ez eta atzerrirako bidea abiatu nahiago izan zuen, gure herriko beste hainbesteren antzera.

Erbestean hogeita sei urte eman behar izan zituen Federikok, harik eta 1978.ean, Franco hil ondoren, Hego Euskal Herrira itzuli arte. Artean, Parisen hiru urtez egon zen. Ondoren, sei urte iragan zituen Alemanian. Han Johanna Lück andrearekin ezkondu zen, ezkontza horretatik seme bat izan zuen, Chandra Alexandros, sinologoa, gaur egun Alemanian ordenagailu enpresa batean lanean aritua, euskaraz ere badakiena. Geroago Euskal Herrira itzulirik, Biarritzen hiru urte egin zituen, De Gaulle-ren gobernuak, *Vasconia* liburua argitaratzegatik (1963), kanporazi arte. Ipar Euskal Herrian izan zen garaian, ordea, ez zuen Euskaltzaindiarekiko harremanik galdu; aitzitik, Xabier Dihartze 'Iratzedarren' izendapena bultzatu zuen. Geroztik, Belgikan izan zen, Erroman (lau urtez), Aljerian (zazpi hilabetez) eta Aosta haranean (zortzi hilabete), hortik berriz ere Belgikara joanez. Han Agnes Caers irakaslearekin ezkondu zen.



Federiko Krutwig Sagredo.

Atzerrian zelarrik, gorago aipatu *Vasconia*-z gainera, Federiko Krutwigek anitz liburu izkiriatu zituen, Fernando Sarraillh de Ihartza ezizenezarekin: *La Cuestión Vasca*, Espainiako Alderdi Komunista Marxista Leninistak eskariz prestatua (1965); *Praktikaz* (1968), *Mao Tzedung Buruzagiaren aiphuak* edo *Liburu Gorria* (1970), *Vasconia y la nueva Europa* (1976). Herriratu ondoren, ez zion argitaratzeari utzi eta beste obra batzuk ere kaleratu zizkigun: *Garaldea* (1978), *La nueva Vasconia*, berrargitarapena (1979), *Ekhaitza* eleberria (1980), *Belatzen baratza saila* (9 liburuki) (1979-1983), *Computer Shock Vasconia. Año 2001* (1984). Fantasia lantzea atseginago zuen errealitate arrunta kontatzea baino.

Obra horiez gainera, erbesteratze-urte horietan Federiko ETAre ideologo eta militantea ere izan zen. *Branka* aldizkarian gerrilla-borrokari buruz, taktikaz eta estrategiaz maiz idatzi zuen. Berak esanik, jakin badakigu garai batean frankismoaren aurkako erresistentziarako armak erosten jardun zuela, non eta Txekoslovakian, Pragako udaberriaren bultzatzaile izan zen Alexander Dubcek-en inguruan. ETAre V. Asanbladan Krutwigek eginiko txostena oinarritzotzat jo zen, erakundearen sortzen ari zen espainolismotik saihesteko.

Diktadura egoera hartako bidegabekeriei aitzit, Federikok armak erabilteari beharrezko bazeritzon ere, demokrazia formala heldu ondoan, berehala aldatu zuen lehengo jarrera, eta behin eta berriro esaten zuen egoera berrian borroka armatuak euskal kausari mesede baino kalte handiagoa egiten ziola, hura erabat gaitzetsiz.

Ideologiaz ezkerreko gizona bazen ere, pixkanaka, marxismo klasikotik, kulturaren eta jakintzaren oinarrituriko ezker aristokrazia intelektualerantz lerratu zuen. Komunismo erreala eginiko kalteak eta izandako porrot ekonomiko soziala ikusita, ez zuen dogmakeria itsuetan iraun. Halere, ez zuen horregatik herriarekiko eta eguneroko arazoekiko loturirik behin ere hautsi eta, hil arte, konpromiso politikoak onartzen jakin zuen, *Euskal Herriarrok* talde eratu berriaren bultzatzaile gisa aurkeztu zen eta.

Haren obra politiko guztietatik eragin handiena utzi duena, ordea, *Vasconia* izan da, zalantzarik gabe. Egia esan, ene ustez, liburu gutxi izan dira Euskal Herriaren gerra ondoko belaunaldiak horrenbeste inarrotsi dituenik. Obra hori, noski, erabat galerazirik zegoen, baina ironiaz, Manuel Fraga Iribarne jaunaren kalkulatu txarrei esker jakin genuen euskaldun askok horren berri. Galiziako gaurko Xuntako presidentea garai hartan Francoren gobernuko Informazio eta Turismo ministroa zen. Jendearen irizpidea moldatu eta gidatzeko, propaganda-astekari bat argitaratzea bururatu zitzaion, *El Español* deitua, hain zuzen. Eta non eta aldizkari horretan hasi ziren publikatzen, Krutwigek *Vasconia*-ren pusketa hautatuak, *Los delirios del separatismo*-ren izenburupean.

Eta zer esanik ez, aitortu behar dut, ene hamazortzi urte haietan delirio haiek ni eta nire inguruko lagunak behintzat erabat liluratzen gintuztela, gure historia zaharra era berriaz kontatzeaz gainera, gertakari hurbilak interpretatzeko era tremendista eta epantante hartan egia sakon ugari esaten zituelako, askoren begien irekiarazle. Ordurarteko nazionalismo geldikor, erdaltzale eta probintzianoa ez bezala, Krutwigek askatasunaren aldeko borroka, euskara, unibertsaltasuna eta kultura predikatzen zigun. Eta gazteok era horretako mezuak nahi genituen, eta behar ere bai.

Euskal Herrira itzuli ondoren, Krutwig zenbait urtez Zarautzen bizi izan zen, azkenean Bilbon kokatu arte. Gure artera etorri bezain laster bere lehengo tokia bete zuen Euskaltzaindian, Literatura Batzordean (1981-1991), Jagon Sailean (1988) eta Exonomastika azpibatzerdean (1985-1998) lan eginez. Azken honetan maiz guztiok txunditurik uzten gintuen bere jakituria sinesgaitzarekin,

ekialdeko hizkuntzetan batez ere, horiei buruzko fonetika-datu zehatzak eskaintzean.

Liburugile izateaz gainera, artikulatu ugari ere idatzi zituen azken urteotan, *Eginen, Deian eta Bilbao* udal hilabetekarian batik bat. Irrati eta telebista-elkarrizketak ere izan ditu, gehienetan zorrotz eta kritiko, gizarte-akuilari. Azken urteetan zibernetikaz eta fisika kuantikoaz kezkatua zebilkgun, euskarak denboraren kontzepzio berriak adierazteko zeuzkan baliabide interesgarriak azpimarratuz. Hor garbi ageri da Krutwigek ez zuela hautsi nahi, gure P.M. Etxenike fisikariak hainbestetan salatu duenez, zientzien eta letren arteko zubia, XX. mendearen bukaerako intelektualak arlo biak ongi gogoan izan behar zituela kontsideratuz. Honek, besterik gabe, ederki asko erakusten digu nolako jakintza-egarria mantentzen zuen Federikok bere azken urteetan ere.

Bazuen gure gizonak beste ezaugarri bat, ene ustez, behar bezainbat azpimarratu ez dena: bere Akitaniazaletasuna. *Vasconia* irakurri duen orok badaki Akitania behialako Euskal Herriaren funtsezko ataltzat aldarrikatzen zuela. Dirudienez, René Lafon Akitaniako eskualdearen eskualtzaintzat proposatu zuen. Ildo beretik, gaskoiera Euskal Herriko erromantze berezizat jotzen zuen eta Akitaniarekiko loturak sendotzearen aldekoa izan zen beti. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Akitaniarekin Atlantiko aldeko ekonomi eskualde nagusia antolatzeke, azken aldion ibilian ari den proiektua, nolabait, Sarrailh de Ihartzak aspaldian aurrikusia betetzera letorkiguke.

Krutwigek, bere agerraldi guztietan, europar tradizio klasikoaren bideari jarraikiz, ongi bereizten zituen, alde batetik, herri mailako kultur adierazpen xumeak eta, bestetik, goi mailako kultura landua. Eta Euskal Herrian bereziki laudatzen zena herri mailako emaitza apala zela kontuan izanik, baserri girokoa batik bat, bera behin baino gehiagotan sala-arbuiatzen zuen jebismoaren apo-teosi horretatik urruntzen saiatu zen.

Bera hiritarra zen, kaletar-kaletarra, eta horregatik, taberna ilun, zikin eta merkeetako ardo txar edo sagardo garratzaren orde, Bohemiako kristal landuzko kopan zerbitzaturiko ardo onaren maiestatea gurago zuen. Arrazoi berberetatik, letra gabeko bat-batekotasuna barik, berak ikasketan, irakurketetan eta luzaroko gogoetetan oinarrituriko lan ongi pentsatu eta mamituak zituen nahiago. Horrexegatik, noski, erdeinatzen zuen bertsoalaritza, era horretako lan gehienak iraute laburreko lore zirelakoan.

Bai, aristokrata genuen Krutwig; jakitearen aristokrata intelektualak, agian zorrotzegia, baina gaztetako hainbat urtetan ikasteari egunero hamalau ordu eskaintzen zizkion pertsonak bazuen, nolabait, besteekin ere zorrotz izateko eskubiderik.

Ba omen zekizkien hogeitaka hizkuntzen artetik, Federikok bi maite zituen bereziki: euskara eta greziera, eta bietan goi mailako aditua genuen. Lehenak euskaldun egiten zuen, bigarrenak, ordea, europar, unibertsal, mundutar, eta bi

maite horiek lantzen saiatu zen gaztedanik. Haren ustez, edozeinek, kultura-duna izateko, greziera klasikoa jakitea ezinbestekoa zuen, eta greziar ikasketak gure artean bultzatzeko asmoz, *Jakintza baitha* izeneko elkarte sortu zuen 1985.ean Bilbon, lagun batzuekin. Horko kideen artean Joan Jose Pujana Arza Eusko Legebiltzarraren buru-ohia, Josu Lavin, Manu Ertzilla, Juan Luis Goikoetxea, Erramun Gerrikagoitia eta beste euskaltzale ezagun batzuk aurkitzen dira. Era honetako elkarteetan tradizioz izandako ohiturarekin bat, kide bakoitzak halako goitizena darama grezieraz. Federena 'Ἀριστων Ἀμμων *Ariston Ammon* zen, Getxoko 'Areetako Hoberena' alegia. Elkarte honek IEPAE *Hierax* aldizkaria publikatzen du, 'belatza' hain zuzen, eta plazaratzen den bakoitzean, Greziako telebistak saio berezia eskaintzen omen dio. Hor Krutwigen artikulua luze bezain sakonak argitaratu dira grezieraz.

Kultura bultzatu nahian, Krutwig kultur erakunde batzuen kide izan zen, adibidez Erromako Accademia Internazionale di Propaganda Culturale (1994), Atenasko Nazioarteko Zientzi Forumaren ohorezko presidentea (1994), Tesalonikako grezieraren zabalkunderako erakundearen ohorezko kidea (1994) eta Atenasko Bizantziar Ikasketen Zientzi Elkartekoa ere ('Επιστημονική Έταιρεία Βυζαντινών Σπουδών).

Grezieraren eta nazioarteko kulturaren alde eginiko lanen esker onez, Federiko Krutwigek sari eta ezagutza asko jaso zituen. Horien artean Atenasko Homero saria (1989), Greziako Kabala hiriko ohorezko domina (1995), bai eta Delphos hirikoa ere. Hermes fundazioak, gainera, beka eman zion Europako munizipalismoari buruzko saiaera bat idazteko (1995).

Euskaltzaindiak ere ez du ahantzirik Federiko. Aitzitik, ongi gogoan izan ditu euskararen eta gure Akademiaren alde eginiko lan ugariak. Horregatik, duela bi urte, haren euskatzaingoaren berrogeita hamargarren urteurrena betetzean, gorazarre berezia eskaini zion, omenezko liburu eder batekin batera. Bera izan genuen geure arteko euskaltzain zaharrena, urtez ez bada, izendapenez bederen, eta ongi merezia zuen guztion ezagutza.

Bilbok, halaber, ez zeukan ahantzia. Bidebarrieta Biblioteka Kulturguneak, horren zuzendaria zen Joseba Agirreazkuenaga jaunaren ekimenez antolatuturik, 1997.eko ekainaren 19an omenaldia egin zion, Bilboko agintarien, Bizkaiko intelektualaen eta Greziatik bereziki etorririko Triantaphylos Karayannis Irakasle Akademikoaren presentziarekin. Han euskaraz, greziera klasikoaz eta modernoaz, eta gaztelaniaz, gure humanista bikainaren merezimenduak gorai-patu ziren, geroago liburu batean bilduak (3).

Obra horretan Josu Lavinek gogoratzen digunez, εγω μόνον λογοζ ειμι 'hitza besterik ez naiz' idatzia zuen Federikok bere buruaz, apalki. Hitza, egia, baina hitz bizia, hitz eragilea, gogo-bultzatzailea, kezkak sortzen zekien hitza. Hitzak maiz ideia eraberritzaileen lehen haziak izaten direlako, proiektu han-

(3) Ikus 1. oharrean aipaturiko obra.

dien aitzindari. Horrexegatik goraipatzen zuen hitza Done Joanek bere ebanjelioaren hasieran, berri onaren ekarle: 'Ev ἀρχῆ ἦν ὁ λόγος 'Hatsean zen Hitza' eta maiz, bataiatzaileari gertatzen zitzaionez, φωνὴ βοῶντος ἐν τῷ ἐρημῷ 'desertuan oihuz dagoenaren boza' irudi dakigun arren, historiak eskuarki erakusten duenez, arrazoizko argudioetan oinarrituriko hitzei arrakasta ohi darraie atzetik.

Amaitzera noa. Ez nuke kronikatxo hau bukatu nahi, ordea, Krutwigen bizitzako beste puntu bat, gainetik bederen ukitu gabe. Ongiegi dakit ohiko hilberri batean honelakorik ez dela egiten, gizabide xumeenak hala gomendatzen duelako. Halere, arazo hau aurretik plazaratu da, eta modu aski trakets, desegoki eta, ene ustez, maliziatiaz plazaratu ere, ahoa isilik ukan balu dotoreago egongo zatekeen alkate izandako baten nabarmenkeriagatik gainera. Beraz, ene iritziz, besteok ezin gaudeke horretaz deus esan gabe. Noski, Federiko abandonuan, bazterkerian zokoratua eta hila zelako gezur maltzurraz ari naiz. Eta hemen kontua ez da nork bere buruari dominak ezartzen hastea, iraina argitzea baizik.

Federiko Krutwigek, gorago esan denagatik, bere bizitzako zati luzean erbesteturik bizi izan behar zuen, kanpoan era askotako lanetan (itzultzaile, interpretari...) ibiliz. Hori dela eta, Euskal Herriratu zenerako, jadanik adineko pertsona zen eta, bertan Gizarte Segurantzapeko jardunik aski ez zuenez, egoera ekonomiko larrian aurkitzen zen. Horretaz jabeturik, bai bere lagunek —eta beste askoren artean Anton Artiñano, Manu Ertzilla, Juan Jose Pujana, Josu Lavin aipa litezke— eta bai Euskaltzaindiak laguntza eskaini nahi izan zioten, bere azken urteetan lasaitasunez bizi zedin. Lagun zintzo bezain eskuzabal horiengandik etxea eta bestelako sorospideak eskuratu zituen, Euskaltzaindiarengandik, ordea, hileroko diru-laguntza. Akademiaren bileretara joateko, bestalde, hainbat euskaltzainek ukan dugu bera leku batetik bestera eramateko ohorea.

Batzuek eta besteok gehiago ere eskaini nahi genion, egia, baina ezinezkoa zen. Federiko Krutwigek bere bakartasun intelektuala eta askatasun pertsonala uki ezineko altxortzat jotzen eta babesten zituen. Alde horretatik, ez zuen inola ere nahi inor bere etxean eta bere barruko gauzetan sar zedin. Alferrik izan ziren, beraz, bere bizilekura, garbi-ikuziak egiteko edo, zerbitzariren bat bidaltzeko proposamen guztiak. Eta horren aurrean, bai lagunek eta bai Euskaltzaindiak azken unerarte errespetatu nahi izan dute haren borondatea.

Besterik izan zen, ordea, iazko udaberrian aldakan istripua izan eta ospitaleratu beharra ukan zuenean. Bere inguruko adiskideen urgazpenaz gainera, Euskaltzaindiak eta Euskal Idazleen Elkarteak andre laguntzaile bat jarri eta ordaindu zuten, haren ezintasunetan sorosteko. Lagundu bai, baina edozein kasutan berak nahi eta uzten zuen neurrian, haren nahia behin ere bortxatu gabe. Eta hori behintzat behin betiko argi eta garbi gelditu beharko litzateke.

Arestian aipaturiko aldaka-istripuaren ondorioz, makal xamar zebilen azken hilabeteetan, horregatik, ahal zuen neurrian, gizarte eta politika-ekin-tzetara joateari uko egin gabe. Horrela, Guggenheim-en egon zen irailean, ETArek su-etena baino bi egun lehenago, Katalan-galego-euskaldunen forumaren aurkezpenean, bai eta *Euskal Herritarrok* taldearen jendaurreko prentsaurrean ere. Heriotza 1998.eko azaroaren 15ean etorri zitzaion, igandez, bere etxean zelarik.

Fededuna ez izaki, haren omenezko ospakizunak Derioko hilerrian egin ziren, senide, adiskide, euskaltzain, unibertsitario eta era guztietako politika eta kultura agintari eta lagunen artean. Azpimarratzekoa da, berriz ere, bertan izandakoen iritziz, pentsamolde eta ideologia ugariak, Federiko Krutwigen gogo zabal eta anitzaren ispilu.

Haren hilkutxa euskaltzain eta lagunen artean jasorik, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, euskaraz, Krutwigen merezimenduak goraiatu zituen, gerra aurreko eta ondoko belaunaldien zubia izan zela azpimarratuz. Josu Lavinek, greziera klasikoaz, haren glosa egin zuen bokantza handiz. Haren loba ere esker oneko hitzekin mintzatu zen gaztelaniaz. Xabier Amuriza bertsolariak, bere boz ederraz, guztion izenean azken agurra eskaini zion bertso hunkigarrietan.

Egun batzuk geroago, azaroaren 27an Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan egin zuen hileroko bileran, *postume*, gorazarre bat eskaini zion, euskaltzainburuaren bidez. Hartan, Agnes Caers haren emazteak, Belgikatik bereziki helduak, laudorio eta omenezko hitzak esan zituen.

Biharamunean, azaroak 28an, Federiko Krutwigen azken nahiari jarraikiz, emazteak eta adiskideek haren errautsen herena Laidako hondartzan itsasoratu zuten, Euskal Herritik mundu zabalera heda zedin, zenduak *eman ta zabal zazu* lema berea eginik. Errautsen beste heren bat senideek gorde dute, familiaren panteoirako. Azken herena Atenasen barraiatzekoa da, Federen azken ekaiak hegaz egin dezan betiereko, berak hainbat maite ukan zuen Heladeko zeru urdinetan zehar. Horrela, bi urte lehenago, 1997.eko omenaldian Xabier Iratzederrek eskaini zion poeman profeta gisa eskainiriko hitzak betetzen ziren: "*Badakit euskaltzain bakoitzak, zuk bezala, bi Herri dauzkala: Euskal Herria... eta mundu zabala*".

Gure artean ere haren bizialdi eta mezu distiratsuaren itzala ez da erraz iraungiko, zeren hura zen kandela zatxekana eta argi egiten zuena.

Bukatzeko, erregu bat egin nahi nioke Euskaltzaindiari: eska diezaiola Getxoko udalari haren jaioterrian, Areetan, Federiko Krutwigen izena kale bati ezartzeko. Bilboko udalari, aldiz, Ibaizabalen gainean eraikitzeko omen diren zubi berrien arteko bat, halaber, *Krutwigen zubia* gisa izendatzea kontsidera

dezala, belaunaldien artean eta kultura ezberdintasun artean hainbeste aldiz zubi izaten jakin zuen euskaldun ospetsu honen ohoretan.

Zaude bakean. 'Ev εἰρηνῆ ἰσθ!

Xabier Kintana Urtiaga

* * *

KRUTWIG JAUNARI BURUZ

Xabier Kintanak esan duenari ezer kendu gabe, nik ere nahi nituzke hitz batzuk esan, gehituz, Federiko Krutwigi buruz, neronek ezagutu nuen aldetik. Eta hasiko naiz Krutwig nola ezagutu nuen esanez. Teologian graduak egiteko Comillasera bidali ninduten eta han hiru urte pasa nituen, udako bakazioetan Arantzazura etorriaz, Bilbotik pasatuz, noski. Han -Comillasen- tesia egin nuen Ama Aingeru Sorazuri buruz, Aita Eusebio Hernández jesuitaren zuzendaritzapean. Arantzazun bagenuen inprentatxo bat eta han tesia argitaratzea pentsatu nuen, baina esan zidaten ezetz, han ezin zitekeela atera, lehendik ere batzela lanik aski, etab.

Norbaitek esan zidan orduan Bilboko Erruki Etxean (Casa de Misericordia deritzon) bazela inprenta bat, han bizi eta lan egiten zuten gazteei ofizioa irakatsi eta liburuak ateratzen erakusteko, eta hara jo nuen. Eta argitaletxe horretara maiz egin behar izaten nituen joan-etorriak Arantzazu eta Bilbo artean. Orduan hasi nintzen Federiko Krutwig Sagredoren izena ere entzuten. Berau bilbotarra zen, baina aita alemana zen, Bilbon fabrikaren bat zuena. Bilboko gure komentuko telefonotik deitu nion, eta bai berak puntualki erantzun ere. Esan nion nahiko nukeela bera agurtu eta ezagutu. Eta esan zidan "Ba etorri!". Eta beste gabe joan egin nintzen. Etxe eder bateko pisu batean bizi zen. Esan nion zertara nentorren: bera ezagutzeko, alegia, bere entzutearen berri banuen z gero.

Hauxe izan zen, bada, nire lehenengo harremana Krutwigekin. Berak Euskaltzaindiarekin bazituen harremanak eta lortu zuen ni euskaltzain egitea ere. Horretarako hitzaldi bat behar nuen egin, eta eguna eta herria ere finkatu behar ziren. Nik esan nuen neure herria -Gernika- orduan bonbardeoarekin deuseztatuta gelditu zela eta han ezin zela egin. Krutwigek bere aldetik esan zuen: "Ez, hori hemen Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioan egin behar da".

Jarri zen, bada, epea eta eguna hori egiteko. Eta eguna heldu zenean eta, entzule gisa, jende asko zegoelarik, nik neure hitzaldia irakurri nuen, ez osorik, ordea, luzeegia zelako. Euskaltzaindia zer zen, zertarako zen, bere historia etab. azaldu nuen pixka bat, laburki. Gero Krutwig jaunaren aldia izan zen. Izugarri txalotua izan zen. Eraso bortitzak egin zituen orduko egoerari buruz. Gero, berri, Krutwig laster desagertu zen. Aitak gomendatu zion estranjerira ihes egiteko eta han makina bat urte igaro zituen, barkazioa iritsi zitzaion arte. Eta bai, urte batzuk pasata, iritsi zitzaion.

Gordetzen dut oraindik egun hartan eman zidaten diploma. Eguna, 1952ko Orrilaren 23an eta zadorlari bezala firmatzen du Nazario Oleagak. Eta Euskaltzainburuaren ordezkari Lekuona'tar Imanol-ek.

Krutwigek, bada, urte asko pasatu zituen ihes eginga bezala Italian, Alemanian... eta ez dakit nik non gehiago. Niri ez zidan kartarik egin, bera kanpoan zegoen bitartean ni ez konprometitzeagatik edo uste dut.

Akademiaren aktoa izan zen hura. Baina Bizkaitik izan ezik, ez zen han beste euskaltzainik izan, Lekuona jaunaz kanpo.

* * *

Nik ezagutu nuen aldetik begiratuta, nolakoa zen, bada, Krutwig jauna? Euskaltzaindiko batzarretara beti etortzen zen, hutsik egin gabe. Gero gurekin bazkaltzen zuen, hotelean. Ez zuen asko hitz egiten. Beharbada hori konprenitzeko, esan behar da pixka bat totela ere bazela.

Behin bakarrik uste dut egon zela Arantzazun Euskaltzaindiko batzar bat han egin zenean. Eta mendiak eta paisajea ikustean, hauxe esan zuen: "Esto no es bello, esto es sublime".

Euskaltzaindiko batzarretan nahikoa isilik egoten zen. Esaten zirenak errespetoz entzuten zituen, hori bai.

Behin gogoan dut nola etorri zen Krutwigen aita Gernikako gure etxera (hobekiago esan, Erreterria aldean bizi ginen etxera). Pentsatzen dut berak norbaiti galdetuko ziola non bizi nintzen, eta hala etorri zen. Gogorak bota zizkidan semearen kontra, ez baitzegoen pozik atzerrian zeraman bizimoduarekin.

Hori ez dakit, baina Krutwig atzerritik etorri zenerako, uste dut aita hila egongo zela jadanik.

Nik entzuna dut Bilbon bazirela —eta orain ere izango dira agian— *Deutsche Schule* deituak, hots, aleman eskolak, Bilbon fabrikak zeuzkaten alemanen

seme-alaben eskolak, eta dirudienez, gure Krutwigek horietako batean egingo zituen haurtzaroan bere eskolak. Eta agian horregatik bazuen alergia bat kristau eskoletarako, baina ez dakit hala den.

Jaunak, hori da nik dakidan guztia.

Fr. Luis Villasante O.F.M.